

Euskal Unibertsitatea eta herrigintza-familiak

Ekai Txapartegi
UPV/EHUko irakaslea

Artikulu hau UEUren 49. Udako Ikastaroen irekiera-hitzaldian oinarritzen da. Euskal unibertsitaterik badugun da galdera eta, horrekin lotuta, unibertsitateak eta euskalherrigintzak nolako harremana behar luketen. Egungo euskal unibertsitate-sistema egikaritu duten lau herrigintza-familia ezaugarritu ondoren (estatugile-euskaraduna, akademiko-instituzionala, kooperatibo-hezitzailea eta eraldatzaile-kritikoa), bakoitzaren ekarpenak, toposak eta azpimarrak ageriko egin eta haien arteko aliantza estrategikoa berregitea proposatzen da. Euskal unibertsitate-sistemaren helburu adostua Euskal Herriaren jabekuntza epistemikoan jarrita, indarrean dauden esperientziak jaso eta aurrera egiteko hainbat norabide aurkezten dira.

GAKO-HITZAK: Euskal Unibertsitatea · Herrigintza · Herrigintza-familiak · Jabekuntza epistemikoa · Joxe Azurmendi.

Basque University and nation-making families

This article is based on the opening lecture of the 49th edition of the UEU Summer Course. It addresses the question of whether we have achieved the Basque University and, in relation to this, the relationship between the university and the nation building. After characterizing four nation-building-families who have carried out the current basque university system (Basque-centered-Statist, Academic-Institutional, Cooperative-Educational and Transformative-Critical) to make visible their particular contributions, their topos and their specific underlines, I propose to remake their strategic alliance. Also, I present some current experiences and point to several directions to move forward within the consensual objective of the basque university system and the common goal of the epistemic empowerment of the Basque Country.

KEY WORDS: Basque University · Nation-making · Nation-making families · Epistemic empowerment · Joxe Azurmendi.

Nola irudikatzen duzu euskal unibertsitatea XXI. mendean?¹ Egin zait galdera. Galdera hori uler liteke honela: nola hurbildu unibertsitatea eta herrigintza? Akademiatik herrigintzan nola eragin, alegia. Zer egin dezake unibertsitateak herrigintza indartzeko? Herrigintza, eraldaketa sozialen perspektibatik ulertuta, eraldaketa feminista esaterako². Nola egin unibertsitatea eta jendartea feministagoa izan dadin? Nola bihurtu gizartea ezkertiarra, inklusiboagoa, ekologistagoa...? Herrigintza euskalherrigintza bada, ordea, hausnarketa orokor hori hemen ainguratzen badugu, gure testuinguruan, galdera konkretuagoa egin genezake: nola indartu dezake daukagun unibertsitate-sistema konplexuak Euskal Herria? Galdera konkretuago hori da nire galdera, Euskal Herriko testuinguruan kokatzen dudalako.

«Indartu», unibertsitateak epistemikoki eta teknikoki indartu dezake. Edo niri behintzat ikuspegi hori interesatzen zait gehien: unibertsitateak Euskal Herria epistemikoki eta teknikoki indartzea XXI. mendeko arazoei aurre egiteko, ezagutzaren bitartez³. Hortaz, nire ustez, unibertsitateari Euskal Herria epistemikoki indartzea dagokio eta oraingo unibertsitate-sistemak asetzen ez bagaitu, agian aurreko galderari buelta eman behar zaio: XXI. mendeko arazoei herri moduan eta ezagutzatik aurre egiteko, zer norabidetan bultzatu behar du herrigintzak daukagun unibertsitate-sistema? Ez diot nik erantzungo galdera potolo horri, gainditu egiten nauelako nabarmen. Dena den, eta hori horrela, hausnartzen jarraitzeko bi argibide eman nahi nituzke bederen. Batetik, herrigintza ez dela singularrean ulertzen, hau da, euskal unibertsitatearen norabidean gutxienez lau herrigintza-familiak egin dute lan, bakoitzak bere azpimarrekin, bere tokitik. Bestetik, unibertsitateari dagokion euskalherrigintza epistemikoa hobeto antolatzeke eta euskal unibertsitate-sistema norabide horretan jartzeko, ona izango litzatekeela lau herrigintza-familia horien arteko aliantza berritzea.

1. Lau herrigintza-familia

Euskal unibertsitatearen proiektuari dagokionez, orain arte behintzat, gutxienez lau herrigintza-familia bereiz daitezke. Hori izango da artikulu honen lehenengo tesi nagusia eta marko historikoa. Gaur egun daukagun unibertsitate-sistema konplexua, hein handi batean, aurreko mendeko 60 eta 70eko hamarkadetan sortu edo mamitu ziren lau herrigintza tipo, herrigintza joera edo herrigintza-familien ondorioa da.

- **Herrigintza estatugile-euskaraduna.** Euskal unibertsitate nazionala irudikatuko dute. Europako gainerako nazio-estatuek dauzkatenak bezalakoak⁴.

1. Grabazioa entzuteko: <https://www.youtube.com/watch?v=DyYQ-YPqMEE>

2. Aurtan bertan, esaterako, UEUko Filosofia Sailak, Agora elkarteak eta Joxe Azurmendi Katedrak «Filosofiatik ezabatutako emakumeak» ikastaroa antolatu dugu Eibarren, filosofia modu ez-misoginoan nola irakatsi pentsatzen hasteko.

3. «Ezagutza» edo *epistemea* ere modu zabalean erabiltzen ditut, Filosofian hainbatetan erabili ohi dugun zentzuan. Agustín Arrietaren liburuan (2019), esaterako, *episteme* gisa jasotzen dira zientziak, gizarte-zientziak edo arteak. Horiekin batera, norbere bizipenak ere gehitu genitzake ezagutza mota gisa, batez ere nor izatetik datozen bizipenak (euskaldun, emakume, gazte, elbarri... edo dena delako izatetik jasotzen direnak). Ezagutza bidez indartu, beraz, zientzia-ezagutza bidez izan daiteke, baina, baita ere, modu zabalagoan jakintza mota gehiago bidez ere.

4. Erreferentziatzko liburua: *Oraingo gazte eroak* (Azurmendi, 1998).

- **Herrigintza akademiko-instituzionala.** Euskara progresiboki txertatuko duen masa-unibertsitate homologatua irudikatuko dute⁵.
- **Herrigintza kooperatibo-hezitzailea.** Kooperatibak eta haien proiektu emantzipatzailea elikatuko dituen unibertsitatea irudikatuko dute⁶.
- **Herrigintza eraldatzaile-kritikoa.** Unibertsitate herrikoia eta kritikoa irudikatuko dute⁷.

Lauko sailkapen hori nire proposamena da⁸, behin-behinekoa, baina didaktikoki ondo funtzionatzen duela uste dut, bakoitza Joxe Azurmendiren liburu banatan irakur daitekeelako. Gutxi gorabehera: Txillardegi, Santamaria, Arizmendiarieta eta Gandiaga. Lau gizon, hiru gipuzkoar eta bizkaitar bat, garai hartakoak⁹. Edota praktika politikoaren tipo idealen mailan irudikatuta: politikaria, kudeatzailea, kooperatibista eta aktibista. Tesia da garai hartan, duela 40-50 urte, horiek denek onartu zutela Euskal Unibertsitatea proiektu beharrezko bezala, bakoitzak bere erara hartuko duen arren, bere kezketatik. Horiek guztiek bultzatuko dute Euskal Unibertsitatea eta, ondorioz, herrigintzaren erdigunean jarriko da Euskal Unibertsitatea sortzea, eraikitzea, antolatzea..., baina bakoitzak bere jitea edo izaera eman nahiko dio.

1.1. Proiektu komuna: Euskal Unibertsitatea

Garai hartan formulatzen da Euskal Unibertsitatearen definizio edo ulkerera zabala, ametsa edo proiektu komuna, guztiek onar lezaketena. Karlos Santamariaren definizio ezaguna, esaterako, 1977koa da: «Euskal Unibertsitate bat behar dugu, euskal kultura euskaraz irakats dezana eta haren *alma mater* izan dadina» (Santamaria, 1977: 67).

Definizio, ulkerera edo irudikapen zabal horretan Euskal Unibertsitatearen ardatza euskara da eta euskarak esan nahi du, edo gordetzen du, edo identifikatzen du: Euskal Herria. Euskal Unibertsitatea, beraz, erdigunean Euskal Herria jartzen duen unibertsitatea izango da. Definizio horretan, ordea, zerbait falta da, Euskal Herria *egiteke* dagoela eta unibertsitateak egiteko horri lagundu behar diola. Euskara zein Euskal Herria, biak daude *egiteke*. Euskal Estatua ere *egiteke* dago. Euskal Unibertsitateak lagundu behar die biei (edo hirurei) egiten. Etxeniketik hori zehatzago jarriko du 1998an:

5. Erreferentziako liburua: *Karlos Santamariaren pentsamendua* (Azurmendi, 2013).

6. Erreferentziako liburua: *El hombre cooperativo. Jesus Maria Arizmendiarieta* (Azurmendi, 1984).

7. Erreferentziako liburua: *Azken egunak Gandiagarekin* (Azurmendi, 2009).

8. Lauko sailkapena ez hartu dogmatikoki. Ez dut esan nahi zehazki lau herrigintza mota daudenik. Adibidez, euskara berreskuratzeaz arituko bagina, ziurrenik gehiago leudeke; estatugintzaz ari garenean gutxiago agian. Ez dago herrigintza kopuru finkorik. Euskal Unibertsitatearen alde egin duten lau herrigintza-familia identifikatu ditut, historikoki horiek agertu direlako, nire iritziz, baina kopurua aldatzen da, batez ere gaiaren arabera.

9. «Gutxi gorabehera» jarri dut nahita, gertutik begiratuta sailkapen pertsonalista hondoratu egiten baita. *Oraingo gazte eroak* liburuak ez du Txillardegiri buruz aipamentxoak egiten besterik; Santamariak EHU bultzatzen zuen, baina «paraleloan» Euskal Unibertsitatea (EU) sortzeko ahalegin oro bultzatzen eta txalotzen zituen; Arizmendiarietak ez zuen «euskal» unibertsitatea irudikatzen (irakurketa abertzalea gerokoa da); eta Gandiagari unibertsitatea urrun geratzeaz gain, seminarioan maisu, bere jardun pedagogikoa ere ez omen zen poetikoegia. Tipologia bati aurpegiak jartzeak elkarrizketa eta memoria laguntzen badu, erabili horraino. Kalterako bada, berriz, baztertu liteke ezer galdu gabe.

Un planteamiento correcto de universidad vasca además de una buena universidad debe incluir la especificidad vasca, tanto en lo referente a la lengua, como al hecho de que es la universidad de un país que, desde difíciles equilibrios, tiene que construirse política, cultural y socialmente (Etxenike, 1998: 72-3).

Egiteke dagoen herri batean, herrigintzaren proiektu komuna herri-egiletza da: Euskal-Herri-egiletza. Euskal Unibertsitatea, funtsean, haientzat guztientzat zera da: unibertsitate euskalherrigilea. Euskal Herria egiten laguntzen duen unibertsitatea. Hori da proiektu komuna eta ez da adostasun abstraktu, hutsalaren gainean eraikitakoa edo. Zentzu konkretuagoa ematen zaionean, Euskal Unibertsitateari akademiaren ohiko hiru zutabeak irudikatzen zaizkionean, goi-mailako ikasketen hiru funtzio nagusien arabera, adostasunak jarraitzen du: (a) kalitateko irakaskuntza izatea, euskaldun belaunaldi berriak prestatzeko, (b) zientzia-mailako ikerketa egitea (c) eta norbere herriaren kultura transmititzea, batez ere euskara lantzea eta euskal gaiak tratatzea, zientzia euskaraz egiteko. Zentzu horretan, Euskal Unibertsitatearen aldeko adostasuna programatikoa ere izatea lortu zuten.

1.2. Egun daukaguna proiektu komun haren emaitza da

Gaur egun daukagun euskal unibertsitate-sistema homologatu eta konplexua lau herrigintza-familia horiek egindako lanari eta ekarpenei esker lortu ahal izan da. Egindako bidea ez da erraza izan ordea. Batetik, herrigintza-familien artean gatazkak ere izan direlako. Prozesua ez da idealizatu behar lau herrigintza-familien arteko elkarlana asmatuta, adostasunak ez zuelako elkarlanik ekarri. Lau indar horiei esker iritsi garai honaino, hori da nire iritzia, baina aurrera egiteko bakoitzak dagokiona egiteko ingurune egokia aurkitzea nahikoa izan zelako. Bestetik, nabaria da euskalherrigintza bidean ohiko diren oztopoak indartsuak zirela. Egun daukagun unibertsitate-sistema proiektu komun haren emaitza dela baieztatzean, ez dut esan nahi egungo unibertsitate-sisteman euskalherrigintza nagusi denik, kontrako indarrak ez dagoenik, pisurik ez dutenik edota historia ulertzeko gutxiets daitezkeenik. Egungo unibertsitate-sistema ez da euskalherrigintzen emaitza «bakarrik» izan, anti-euskalherrigintzek ere indarra erakutsi dutelako (orain gutxiago) eta zenbait norabidetan aritzeko, oraindik orain, euskalherrigintzak erresistentzia sistematikoak, gogorrak eta egiturazkoak topatzen dituelako. Dena negoziatu behar izan da. Egindako bidea ez da erraza izan, baina, hala ere, eta zailtasunak zailtasun, edo hain zuzen horiengatik, gorestekoa iruditzen zait honaino ekarri izana eta lau herrigintza-familiei aitortu eta eskertu beharrekoa.

2. Herrigintza-familia bakoitzaren azpimarrak

Doktore-tesi bat baino gehiago emango lituzke dinamika horiek aztertzeak. Ikerketa enpirikoa beharko luke. Mikel Aizpuruk (2002) lana aurreratuta utzi du bere «Aldarrikapen baten bilakaera historikoa»n. Baina eskema orokor gisa, euskal unibertsitate-sistemaren garapena ulertu ahal izateko, inportantea iruditzen zait kontzeptualki bereiztea herrigintza-familia bakoitzak euskal unibertsitatearen proiektua nola ulertzen duen, hezkuntza nola ulertzen duen eta horren arabera azpimarrak non jarri dituen. Jarraian, banan-banan eta labur aurkeztuko ditut.

2.1. Herrigintza estatugile-euskaraduna

Euskal Unibertsitateak unibertsitate nazionala izan behar duenez, «euskaraz eta nazio-egituratzaile» irudikatzen da.

Hezkuntza nazio-erreproduktzioarako bitarteko ezinbestekotzat duenez, hezkuntzak euskaldun belaunaldi berriak hezi behar ditu. Proposamena esentzialki politikoa da, politikaren zentzu klasikoan.

Euskalherrigintza estatugintza da, Euskal Herria egiteko ere estatu-egiturak behar direlako, unibertsitate nazionala esaterako. Hortaz, euskal errepublika izango bagenu edukiko genukeen unibertsitate nazionalaren antzekoena lortzea da helburua.

Euskal Unibertsitateak euskaraz funtzionatu beharko luke hasieratik eta proiektu subiranistari azpiratuta legoke. Hortik eratoritzen dira, idealki, unibertsitateak erakunde erabat subiranoa izateko asmoa, erabat autonomoa Madrildik edo Parisetik, zazpi herrialdeak hartuko dituen, curriculum, langileria, araudi eta ebaluazio-sistema propioak izango dituen, eta agian baita epistemologia propioa ere, mundua euskal esperientziatik pentsatzeko.

2.2. Herrigintza akademiko-instituzionala

Euskal Unibertsitateak masa-unibertsitatea izan behar duenez, «homologagarria (zientifikoki eta erakunde gisa) eta zabala» irudikatzen da. Euskara progresiboki sartzen ahalegintzen da, baldintzen arabera.

Hezkuntza aberastasuna da, inbertsio mota, jendartean ondo banatu beharrekoa. Horregatik nazioartean homologagarria den masa-unibertsitatea behar da, ahalik eta euskaldun gehienek goi-mailako ikasketak modu eskuragarrian jaso ditzaten.

Euskalherrigintza baliabideen administrazioari lotuta ikusten da. Administratiboki banatu beharreko baliabide inportantetzat dauka zientzia-kompetentzia eta goi-mailako heziketa, ahalik eta izaera humanistena duena.

Praktikan, Euskal Unibertsitatea bultzatzeak zera esan nahi du: lege-testuinguruaren aukera guztiak baliatzea *ranking*etan altu emango duten unibertsitate-ikasketa eskuragarriak eskaintzeko, ikertzen duena eta kalitateko irakaskuntza merke eskaintzen duena. Marko instituzionala onartzen denez, kultura zientifikoaren bitartez balio demokratikotan hezteari emango zaio garrantzia: prozedura burokratikoaren garrantzia, adierazpen-askatasuna, dogmatismoaren ukoa, ebidentzian oinarritzea, pluralismoa eta halakoak.

2.3. Herrigintza kooperatibo-hezitzailea

Euskal Unibertsitateak unibertsitate kooperatiboa izan behar duenez, «erantzulezta eta ekintzaillezta bultzatzen duen herri-heziketa» gisa irudikatzen da.

Hezkuntza praktikan oinarritutako ikaskuntza da, lan-indar kualifikatua sortzera bideratuta dagoena, ardurak hartzen dakien herri heldua sortzeko norabidean.

Euskalherrigintza autoeraketa bidez lortzen da, hezte- eta heltze-prozesuak ekartzen dituelako ekoizpen-bitartekoen jabe egiteak. Jabetza modu arduratsuan garatuko duen herria formatzeak automatikoki laguntzen du euskalherrigintza, bai teorikoki, bai praktikoki.

Praktikan Euskal Unibertsitateak heldutasun intelektuala, ardura eta ekintzailtza bermatu behar ditu, lurraldeko eta eskualdeko sare produktiboarekin eta proiektu errealekin lotuta dagoen ikaskuntza-jarduera praktikoa bitartez. Euskara ere, perspektiba horretatik, zaindu beharreko altxorra baino gehiago, edo nortasun-sinboloa baino areago, erabili eta hobetu beharreko beste tresna edo teknologia bat da.

2.4. Herrigintza eraldatzaile-kritikoa

Euskal Unibertsitateak heziketa eraldatzailea eta kritikoa eskaini behar duenez, «herri-unibertsitate» gisa irudikatzen da.

Hezkuntza kontrol sozialerako, diziplinatzeko eta sumisioa bultzatzeko erakunde arriskutsutzat hartuta, susmopean jarrita, akademia urruti mantendu behar da merkatutik, boteretik eta baita zientzia hegemonikotik ere.

Euskalherrigintza herritar hezigaitzak sortzea da, injustiziak borrokatzeko alorrez alor, baita unibertsitatearen baitan erreproduzitzen direnak ere.

Praktikan teologia politikoa garatzen da, programatikoa, heziketak zanpatuekin eta pobreekin bat egin behar duelako. Herri xeheak ere badauka ikasteko eskubidea eta beharra, baina ikasketa ez da goitik beherakoa, horizontala baizik. Ezagutza lokala da, barreiatua dago eta, beraz, ez dago irakaskuntzarik, ikasketa multidirekzionalak bakarrik. Herri-jakintzak zientziaren pare balioztatzen dira: mitoak, sustraiak, tradizioak, abestiak, kondairak eta halakoak jasoko ditu. Naturarekin bat, unibertsitatearen erreferentzia soziala da, injustiziak seinalatzen ditu eta izaera periferikoa izan beharko luke, gizatiarra eta etikoa.

2.5. Nork nondik

Ondorioz, lau herrigintza-familietako bakoitzak bere erara interpretatuko du euskal unibertsitatearen proiektu komuna, «nondik» espezifikoa gehituta. Unibertsitatea euskalherri-egilea izango da, Euskal Herria egiten laguntzen duen unibertsitatea, gutxieneko horretan denak ados, baina:

- euskaratik,
- egungo marko administratibotik,
- autoeraketatik,
- kontzientzia etikotik.

3. Herrigintza-familia bakoitzaren *toposak*

Lau posizio nagusien aurkezpen horrekin batera, intuitiboki ohartu beharrekoa iruditzen zait herrigintza-familia bakoitzak bere tokia edo *toposa* izan duela. Horrela bermatu da bakoitza bere moduan jardutea, norabide komun horretan baina modu autonomoan nolabait.

3.1. Herrigintza estatugile-euskaraduna

Tokia. Batez ere proposamen politikoa denez, estatugintzari lotua, unibertsitate kanpoko presio gisa sentitu izan da. Ez da unibertsitate-sistemaren kudeaketan inplikatu, politikatik edo sindikalismotik aritu izan da gehiago, diskurtso politikoa gisa.

Ekarpena. UEU erreferentzia nagusia eta sinbolo izan da herrigintza horrena eta egitasmo konkretuen ekoizle eta gordailua. Irakasle kaleratuen gatazka ere testuinguru honetan kokatzen da. Edo Euskal Herriak Bere Eskola ekimena eta halako asko. Nire ikasle garaiko Ikasle Abertzaleak ere hor kokatzen dut, ikasgaiak eta graduak euskalduntzeko mobilizatzen ginenean esaterako.

Familia. Herrigintza-familia honen ezaugarria da nahiko multzo homogeneoa osatzen duela, ikuspegi politiko estatugilearen inguruan. Azken 30 urteetan «Euskal Unibertsitatea» gauzatzeko hainbat egitasmo bertan behera geratu direnez («Bai Euskal Unibertsitateari!» esaterako) zabaltzen joan da gauzaezina delako ideia: borondate politiko faltagatik, lege-ezinagatik, akademiarien «komunitatea» abenturetarako ez dagoela ohartzetik, adostasun sozial faltagatik edo dena delakoagatik. Ondorioz, herrigintza-familia hau unibertsitate-sisteman integratuz joan da eta haren presentzia politikoa eta eragina ia erabat apaldu da hutsune nabarmena uzteraino. Hutsune horren adierazgarri da Agirre Centerren txostena, *The contribution of the Basque University System to the transformation of Basque Society* (Madinabeitia *et al.*, 2018), non hiru diskurtso mota bereizten dituzten: *akademiko-instituzionala*, *tekniko-ekonomikoa* eta *kritikoa*. Esanguratsua da ikerketa horretarako egin dituzten 25 elkarrizketa kualitatiboetan ez dela ageriko egin herrigintza-familia estatugilerik.

3.2. Herrigintza akademiko-instituzionala

Tokia. Herrigintza akademiko-instituzionala makina-aretoan jardun izan da, arazoak konpontzen, negoziatzen eta unibertsitate autonomikoak eta pribatuak kudeatzen. Erkidegoek duten autonomiaren potentzialtasuna garatu izan du.

Ekarpena. Egungo EHUren forma, egitura, funtzionatzeko modua eta lorpenak ulertzeko, hau da triburik inportanteena. 1985etik hona masa-unibertsitatearen ajeak eta hazkunde azkarraren eraginak askotarikoak izan dira. Amalgama eta indarharreman kaotiko horretatik arazo konkretu askoren irtenbideak bilatu behar izan dituzte, hala nola aldaketa demografikoak, irakasle kualifikatuen gabezia, lurralde-oreka goi-mailako hezkuntza-eskaintzari dagokionez eta ikerketa-poloen sorreran, nazioarteko balioztea, ikerketaren kalitatea, talentua erakartzea, beka-sistemak, kontratazio-prozedura endogamikoa, irakasleriaren zahartzea, gazteak minimoki

formatzea merkatu-behar aldakorrei erantzuteko, euskara gradu ia guztietara zabaltzea, ikasketa guztiak akreditatzea, unibertsitatearekiko identifikazio falta (urrun sentitzea) gainditzea.... Arazo eta gabezia horiek denak 90eko hamarkadan identifikatu ziren eta horietako zenbait proposamen gaur errealitatea dira: Ikerbasque, esaterako, edo ikasle zein irakasle mugikortasun-programak edo irakaskuntza-kalitatearen adierazleak edo...

Familia. Ez dira talde edo multzo homogenea, baizik eta interes orokor bera partekatzen duten lankideak. Unibertsitate barruan bizi direnez «afektatuak» dira, euren lurraldea babestu, garatu eta indartu nahi dutenak. Beste familiekiko alde handiena da ez daukala berekoa izateko arazorik (profesionalki edo herri gisa) eta ez daukala arazorik Autonomia babesteko (jasotzen dituen erasoengandik). Euskal estaturik ez izateak ez du euskalherrigintza beste edozein herri- edo nazio-gintzatik diferentea egiten.

3.3. Herrigintza kooperatibo-hezitzailea

Tokia. Mondragon Unibertsitatea 90eko hamarkadan sortua da. Aitortzen dut ez dudala apenas ezagutzen eta arduragabea nintzateke unibertsitatearen jardunaz hitz egingo banu. Filosofiar dagokionez, ordea, Arizmendiarraren pentsamenduaren muineko ideia da emantzipazioa, bere idatzietan behin eta berriz baieztatzen duelako herriak burujabe egiteko kapital ekonomikoa eta kapital kulturala (beraz, kalitateko hezkuntza) eskuratu behar dutela. Kanpotik ikusten dudanagatik, esango nuke Mondragon Unibertsitateak ahal duen bezain leial eta estu jarraitzen diola filosofia emantzipatzaile horri. Lurraldeari ondo lotutako unibertsitatea da, euskara eta kooperatibismoa ardatzean jartzen dituenak.

Ekarpena. Herrigintza-familia honen meritu nagusia da unibertsitate bideragarria sortzea, hutsetik eta kooperatibismo emantzipatzailearen printzipioak aplikatuta. Agian oraindik ezin liteke euskal epistemologiari buruz hitz egin, mundua euskal esperientziatik ezagutzeaz alegia, baina haren autoeraketa- eta berrikuntza-prozesuak bertako kooperatibagintzaren espezifikotasunaren autokontzientzian oinarrituak direnez, egiten duen ekarpen epistemologikoa ere aintzat hartzekoa da.

Familia. Komunitate hau bazkidez osatzen da batez ere. Beraz, profesionalen komunitatea zabala izan arren, pentsamenduz askotarikoa, nolabait ere guztiak multzo homogenea eratzen dutela esan daiteke, Mondragon Unibertsitateak batzen dituelako.

3.4. Herrigintza eraldatzaile-kritikoa

Tokia. Herrigintza eraldatzaile-kritikoaren lekua diskurtsoa izan da, aurrekoen diskurtso guztietan agertzen baita. Nazioarteko joera eraldatzaile eta pentsamendu kritikoen eraginpean, beti erakutsi du gaitasuna beste hiru herrigintza-familien egitasmoetan bere burua txertatzeko.

Ekarpena. Bere ekarpena iritzi-egoerak sortzea da, euskal unibertsitateari nortasuna eta balioa ematen diona unean-unean zehaztuz (feminismoa, inklusioa,

ekologia...), iritzi-egoera horietatik eragile nagusien erabakiak baldintzatzeko. Izan sindikatuak, ikasle mugimenduak edo herri-antolatua, herrigintza eraldatzaile-kritikoaren estrategia da bere lehentasunak eragile nagusiek hartzea, unibertsitate-sistema sozialki garatzen joan dadin norabide etikoetan.

Familia. Hauek ere ez dute talde homogeneorik osatzen, askotariko taldeetan antolatuta agertzen direlako, baina giro ideologiko orokorra baldintzatzeko adina dinamismo erakusten dute. Gainera, azken 15-20 urteetan, herrigintza estatugile-euskaldunak utzitako hutsunea bete dute, «herrigintza» eurekin identifikatzeraino ia eskusiboki.

Horrenbestez, eta laburtzeko, hiru ideia nagusi gordeko nituzke: bat, herrigintza-familia kooperatibistak unibertsitate propioa erdietsi du eta hori ez da nolana hikoia. Bi, herrigintza-familia akademiko-instituzionalak eman dio EHUri gaur daukan konfigurazioa eta indarra. Eta hiru, herrigintza-familia estatugilea apal dabil eta azken urteetan herrigintza-familia eraldatzaile-kritikoak hartu dio lekua.

Hala ere, Euskal Unibertsitatea, badugu?

Lau herrigintza-familiak bereizi eta aurkeztu ditut orain arte. Interpretazio-marko horrek baditu hainbat abantaila euskal unibertsitatearen aldeko dinamika historikoak ulertzeko baina, batez ere, galdera funtsezkoenak sortzen duen desadostasuna ulertzeko balio du: Euskal Unibertsitateari badugu? Nori galdetzen diogun, erantzuna da bai edo ez, eta horrek ez gintuzke harritu edo larritu behar.

3.5. Ezezkoan

Ikuspegi estatugile-euskaradunetik begiratuta *gazte ero horiek* erantzungo dute ezetz, ez daukagula soilik euskarazkoa den unibertsitate propioa, Euskal Herria proiektu politikoari erantzuten dionik. Horrela interpretatu behar da, adibidez, Hezkuntza Plaza Hutsean Ruben Iglesias eta Arantza Urberena deia, «legeak aldatu behar dira», marko legal propioa behar delako euskal hezkuntza garatzeko. Eta arrazoirik ez zaie falta, merituen ebaluazio-agentziak edo ikerketa-proiektuen finantzaketa-mekanismoak aztertuta, esaterako, euskaldunoi jartzen dizkiguten desabantaila sistematiko eta egiturazkoak agerikoak direlako.

Horrekin batera, oso gertu, Gandiagaren teologia politikoaren ildoan kokatzen dudana herrigintza eraldatzaile-kritikoaren joerari jarraitzen diotenean ere uka dezakete euskal unibertsitateari badugunik. Euskal populua zerbitzura dagoena baino gehiago «patriarkatuaren zerbitzura» eta «neoliberalismoa elikatzen» duten unibertsitate deshumanizatu eta alienatzaileak deskribatzen dituztelako, gehiegizko espezializazioarekin analfabetismo akademiko etorri dela salatuz, adibidez. Joera- edo pentsamendu-tradizio horretan kokatzen ditut, esaterako, azken aldian nahiko ozen entzuten diren hainbat ahots kritiko, unibertsitatearen baitako iraulketa «feminista, dekoloniala, komunitarioa, herritarra, deszentralizatu eta gertutik kudeatua, ikasleak erdigunean kokatuko dituen, merkatuen logikatik apartekoa» bultzatzen dutenak (Hezkuntza Plaza Hutsa, (*H*)arian 2020)¹⁰.

10. Testua (*H*)arian dokumentutik hartua da eta Hezkuntzako Plaza Hutsa ekimenak luzatu du.

3.6. Baiezkoan

Beste bi herrigintza-familiek, berriz, akademiko-instituzionalek edo kooperatibohertzitzaileek, egungo unibertsitate-sisteman euskal unibertsitatea identifika dezakete. Euskaraz egiten delako, gradu guztiak ia erabat euskaraz ematen direlako, bertako gaiak, kultura, historia eta ohiturak irakasten direlako, lurraldearen behar sozialei erantzuten zaielako, belaunaldi osoak emantzipatzeko tresna bilakatu direlako, eta abar.

Beraz, Santamariaren ezaugarritzea hartuta ere, «Euskal Unibertsitate bat behar dugu, euskal kultura euskaraz irakats dezana eta haren *alma mater* izan dadina», herrigintzako eragile nagusi batzuek esango dute badaukagula eta beste batzuek esango dute oraindik urruti antzera gaudela.

3.7. Eztabaida antzua

Antzua da arrazoa nork duen erabakitzen saiatzea. Alferrik zatituko gara eta aukeretan enfokatzeko indarrak galduko ditugu. Emankorragoa da, nire iritziz, azken 50 urteetan egindako lana balioan jartzea, hona nola iritsi garen aztertzea eta daukagunaren indarguneak eta aukerak non dauden identifikatzea.

4. Herrigintza-familien arteko aliantza

Lau herrigintza-familien arteko aliantza berrasmatzea da proposamena. Jakinik, dakigun bezala, herrigintza-familia bakoitzak bere irakurketa existentzialak egiten dituela, ikuspegi ezberdinak dauzkatela, kontrajarriak batzuetan, hezkuntzari, politikari, burujabetzari, botereari buruz eta zenbaitetan oinarri etikoak ere ez dituztela partekatzen. Zerk egiten du posible aliantza hori? Nola jarri lau familia horiek berriz ere norabide berean? Elkarrekiko aitortza da lehen urratsa, nire ustez, aliantza hori ez dadin izan unekoa, interesekoa edo koiunturala eta izan dadin sendoa, estrategikoa eta iraunkorra.

Aliantzak izan badira eta elkarlana egin egiten da. Hori da berri ona, nonahi ari direla aliantza horiek sortzen, espontaneoki. Zeregina da halako asmoak biderkatzea eta hobeto saretzea. Ingurura begiratzea aski da azken urteetan egituraturutako hainbat ekimen euskalherrigile identifikatzeko. Batzuk unibertsitate artekoak, esaterako:

- *IkerGazte*. Euskal Herri mailako ikertzaile gazteak biltzen ditu, unibertsitate guztietakoak, euskaraz.
- *ArantzazuLab*. Ikerketa-proiektu bateratuak bultzatzen ditu hiru unibertsitate artean, Euskal Herriaren erronka estrategikoen inguruan hausnartzeko.

Beste batzuk unibertsitate baitakoak, esaterako:

- *Joxe Azurmendi Katedra* «euskal pentsamendua» aztertzeko.
- *IXA taldea*. Euskaltzaindia, UZEI edo Elhuyarrek egiten dituen kolaborazioak euskara sustatzeko.
- *GEZKI institutuak* ekonomia soziala lantzen duten eragileekin egiten dituen kolaborazioak.

Eta beste zenbait unibertsitate kanpokoak baina unibertsitatearekin estuki lan egiten dutenak, esaterako:

- UEUren goi-mailako masterra, edo bigarren hezkuntzako irakasleentzako formazio-ikastaroak edo INGUMA datu-basea.
- JAKINekin egiten diren kolaborazioak, kongresu edo mintegiak antolatzeko.
- *Wikilarien elkarteak* unibertsitatetik jasotzen duen laguntza euskarazko sarrerak idazteko.

Joera berak ikus litezke unibertsitate-sistemaren beste nodoetan, Mondragonek baditu bere egitasmoak, Herrigintza masterra esaterako, edo Deustuk edo UPNAk. Sistemak edo sareak agertzen dira han-hemen lanean, aktiboak, bertakoak eta perspektiba euskalherrigile esplizitua dutenak. Arazoa dispertsioa da, errektiboki funtzionatu duelako herrigintza-familia bakoitzak. Falta zaigu praktika ez-koordinatuen multzo erdi-kaotiko, erdi-boluntarista, erdi-prekario, erdi-zigortu horretatik, praktika euskalherrigile kontzienteetara eta balioztatuta pasatzea. Kontzientziarako jauzia eman behar da, epe ertain-luzerako estrategia komunen barruan lan egiteko.

Estrategia komun horrek, ordea, unibertsitatea baliagarri gerta dakigun, oinarri hartu beharko du nahitaez egungo errealtatearen gaineko hausnarketan, mundua aldatu delako eta gu geu ere aldatu garelako.

4.1. Mundua aldatu zaigu

Karlos Santamariak 1977an Euskal Unibertsitatea irudikatu zuenean ez zeukan buruan gure mundu hau eta bitartean ez dira nolanahiko aldaketak gertatu. Hegoaldean, Francoren diktaduratik autonomiara jauzia. Euskara batu: terminologia, materialak, gramatika edo hiztegi gintza. Sortu berriak edo oraindik sortzeke ziren ikastolak, euskaltegiak edo euskal hedabideak. Unibertsitateek 30 urte dituzte: EHU 1985ekoa da, UPNA 1987koa eta Mondragon Unibertsitatea 1997koa. Telebista 80ko hamarkadan sartu zen gure etxeetara, baina Interneten etorrerak jadanik lekua hartu dio. Gainera, Internetek dena aldatu du. Internetekin batera, Europar Batasunean sartu ginen duela 21 urte eta pezetatik eurora pasa. Europarekin batera ordenagailuak sartu genituen etxean eta ordutik aurrera gero eta gauza gehiago egiten dugu digitalki. Gure ehundura produktiboak ere sekulako garapen teknologikoa bizi izan du: 80ko hamarkadako industrializazioa, globalizazioa, digitalizazioa eta pixkanaka badatorren robotizazioa adimen artifizialarekin. Bakarka hartuta ere hauetako aldaketa bakoitzak (Europar Batasunean sartzeak, euskara zientifikoa izateak edo digitalizazioak) unibertsitatea eta herrigintza birpentsatzea eskatuko luke. Guztiak batera hartuta, zer esanik ez.

Gainera, XXI. mendean mundua mehatxagarri bihurtu da. Ez da urruneko paisaia arrotza edo inpotentea. Krisi ekonomikoak globalak dira, pandemiak globalak dira eta aldaketa klimatikoa globala da. Mundu-mailako larrialdiek larritzen gaituzte gehien. Mundu-mailako arazo eta joerei aurre egiteko (edo aurre hartzeko) tresnak behar ditugu. Mundua zaintzeko tresna lokalak behar ditugu.

4.2. Gu ere aldatu gara

Begi-bistako aldaketa objektibo horiek euskalduna birposizionatu dute, gutxienez bi zentzutan.

a) *Nabaria da garapen ekonomikoa eta giza garapena.* XXI. mendeko euskalduna ez da Gandiagak ezagutu zuen «baserritar pobre eta inkultoa» (Azurmendi, 2009: 7). Gu ez gara gure aitona-amonak bezain pobreak. Nabaria da azken 50 urteetan Euskal Herrian oro har eman den garapen ekonomikoa eta giza garapena. Eizagirre eta Udaondok atera berri duten liburuan (2020), «hazkunde inklusiboan oinarritutako giza garapena» aipatzen dute eta bi oinarri nagusi jartzen dizkiote. Lehena, programa sozialak dira baina, bestea, goi-mailako ikasketen eragina da, lansari ertain eta altuen bitartez aberastasuna gehiago barreiatzen baita beste herrialde edo eskualdeekin konparatuta.

b) *Euskara ere erabakigune garrantzitsuetara iritsi da.* Lanpostu onenetan euskaldunak ikustera ohitu gara. Euskarak konkistatu ditu kulturaren, ekonomiaren eta politikaren gailurrak. Gailur horietan guztietan euskaradunak ikustera ohitu gara. Are gehiago, euskaraz ez dakitenak ardura-postuetan ikusteak, batez ere publikoetan, «anakronismo» sentipena dakarkigu.

Gure aitona-amonak pobre eta inkultoei Espainiari eta Frantziari aurre egiteko oinarritzko tresnak garatu behar zituzten. Logika horretatik Euskal Unibertsitatea irudikatzen hasi ziren, euskara babestu eta garatuko zukeen erakunde gisa. Oraingo euskaldunak, ordea, oro har ez gara ez pobreak, ez inkultuak, alderantziz, eta Espainiari edo Frantziari aurre egiteko baino areago, tresnak eta gaitasunak behar ditugu mundu globalizatu, zoro eta etorkizun iluneko horri aurre egiteko. Hortaz, zerk norabidetu beharko luke Euskal Unibertsitatearen aldeko gaurko aliantzaren logika?

4.3. Euskal Unibertsitatea ez fetitxizatu

Euskal Unibertsitateari dagokionez, proiektu komunari dagokionez, beharraren zentzua aldatu egin da, baina ez da gutxitu. Hazi egin da akaso, hain zuzen aldaketa sakonekoak bizi ditugulako. Unibertsitate-sistemak saretzea ere ez da aski, elkarlanerako espazioak sor daitezke, korapilatu, loturak egin unibertsitate-sistema barruan, eta kanpoarekin, baina ez da aski izango unibertsitate-sistema horrek norabide euskalherrigilea hartzen ez badu, Euskal Herria erdigunean jarriko duena. Izan ere, abiapuntua aldatu da hain zuzen ibilbidearen hasiera egina dagoelako, zorionez. Zertarako balio izan digute azken 50 urteek? Zerk funtzionatzen duen ikusteko eta horregatik, perspektiba horretatik begiratuta, garai ona da «Euskal Unibertsitatea» irudi arkitektoniko bezala baztertzeke. XX. mendeko beharretan oinarritutako desira-irudikapenek ez dute gehiagorako ematen.

Euskal Unibertsitatea irudikatu izan da objektu edo erakunde moduan, bere ezaugarri deigarrienak desira-objektu bihurtuta: dela eraikina, dela euskara, dela erakunde estatala edo direla tituluak. Fetitxizatu egin ditugu ezaugarri konkretuok,

unibertsitatearekin berehala lotzen ditugunak, unibertsitatearen funtzio lehena, abstraktua, aldarrri egin gabe: jabekuntza epistemikoa. Muinera itzultzea proposatzen dut, euskal unibertsitatera, baina esanahiak aldatuta. Lau herrigintza-familia horien erdigunean izan da «euskal unibertsitatea» baina bere ezaugarri deigarrien arabera ulertuta: eraikina, hizkuntza, estatu-egitura edo tituluen monopolioa. Ez da hainbeste ulertu unibertsitateari dagokion logika propiotik. Unibertsitatearen zeregina eta ekarpena gehiago ulertu da euskara zabaltzearekin, erakunde propioak izatearekin, gazteak titulatzearekin. Hortaz, muinera itzultzea da «euskal unibertsitatera» itzultzea, proiektu komun hartara, unibertsitate euskalherrigilera, ulertuaz unibertsitateen zeregin nagusia herria epistemikoki eta teknikoki indartzea dela.

Euskal Herriaren jabetze epistemikoa lagunduko duen unibertsitatea izatea, hori da proiektu komunaren erdigunerako proposatzen dudana unibertsitate-irudikapena. Horrenbestez, «euskal unibertsitate-sistema» kontzeptu administratiboa (eta lausoagoa) ere ez genuke modu «administratibo»an ulertu behar, instrumentalki erkidegoan ikerketa-proiektuak unibertsitate artean eskatu ahal izateko tresna bakarrik bailitzan. Baizik eta zazpi herrialdeetara zabaldua, euskararen lurraldeek eta *episteme*aren lurraldeek bat egiten duten gune horiek guztiak saretzen dituen sistema gisa ulertzen hastea komeni da.

Ez dakigu 70eko hamarkadan irudikatutako unibertsitate nazionalak egun daukagun unibertsitate-sistema atomizatuak baino hobeto funtzionatuko zukeen, sendoagoa zatekeen, babesgarria zatekeen. Baina daukagun honek, bere mugekin, aukera batzuk eskaintzen dizkigu eta sendoa da. Horregatik, honaino ekarri gaituen herri-jardunaren jakiturian konfiantza izan eta eraikin gisa irudikatzen dugun Euskal Unibertsitate Nazionala ordezkatzeko proposatzen dut, proiektu bezala, unibertsitate-sisteman integratutako praktika lokal, koordinatu eta kontzienteengatik, zeintzuek euskalherrigintza epistemikoa, Euskal Herriaren jabekuntza epistemikoa, helburu izango duten.

4.4. Euskalherrigintza epistemikoa

Euskalherrigintza epistemikoa oso modu zehatzean ulertzen dut: XXI. mendeari aurre egiteko, euskal unibertsitate-sistemek Euskal Herria epistemikoki eta teknikoki indartzea, horrela Euskal Herria politikoki, sozialki eta ekonomikoki indartzen jarraitzeko. Izan ere, berez, ezagutza da unibertsitateen muineko lanabesa: indartze epistemikoa. Unibertsitatea, funtsean, ezagutzen jabekuntzarako erakundea denez, XXI. mendeari aurre egiteko Euskal Herria epistemikoki indartuko duen unibertsitate-sistema garatzea da proposatzen ari naizen euskalherrigintza epistemikoa.

XXI. mendeko errealitate-krisiei aurre egiteko, errealitate-zorua jarriko duena, euskaldunon baliabide epistemikoen iturri izango den euskal unibertsitate-sistema mamitzen jarraitu behar dugu. Larrialdiei epistemikoki modu zuzenean erantzuteko, joera zentralizatzaileei aurre egiteko, jendartea koordinatzeko, errealitate-zorua eraikitzeke, horretan guztian euskal erakundeek eta eragile politikoek lagunduko, babestuko eta garatuko dituzten unibertsitate-sistemak antolatu behar dira.

Abiapuntu horretatik, ondo etorriko litzaiguke lau herrigintza-familiaren aliantzok birpentsatzea, kontzienteki, badakigunaren gainean¹¹.

5. Unibertsitate euskalherrigilea: Euskal Herria epistemikoki indartzen duen unibertsitatea

Lau herrigintza-familiak ekarri gaituzte honaino, aitor dezagun hori. Aitor diezaiogun elkarri. Ondoren, ohar gaitezen guztiontzako lekua dagoela unibertsitate euskalherrigilea eratzen jarraitzeko zereginetan. Zer falta da orduan? Euskal unibertsitate-sistemako baliabideak gehiago ustiatzea, komunitateari ere probetxu gehiago ateratzea eta Euskal Herriko gobernantzen zerbitzura jartzea.

Aurretik esan dut duela 50 urte lau herrigintza-familiak lortu zutela adostasun abstraktua, Euskal Unibertsitatea, eta adostasun programatiko bilakatu zutela. Gaur ere beharra bera da, nola itzultzen da euskalherrigintza epistemikoa helburu programatiko? Euskalherrigintza epistemikoa bada unibertsitatearen zeregina, hori hiru eremutan egin daitekeela pentsatzen dut: komunitate akademikoa epistemikoki indartuz, gizarte zibila epistemikoki indartuz eta Euskal Herriko erabakiguneak epistemikoki indartuz, gobernantzan sakontzeko. Saiatuko naiz guztiak banan-banan eta labur azaltzen.

5.1. Komunitate akademikoa

Komunitate akademikoa epistemikoki indartzeaz ari naizenean, komunitate akademikoko hertsiaz ari naiz: ikasle, irakasle eta ikertzaileez. Hiru talde horiek osatzen dutelako gaur ulertzen dugun komunitate akademikoa, hiru nortasun horiek zeregin akademikoei definitzen dituztelako.

5.1.1. Ikasleak: goi-mailako ikasketak + euskara

Unibertsitate-ikasketak masifikatu egin dira. Eizagirre eta Udaondoren analisiari jarraitzen diot hemen: 30 urtetik gorakoan artean bitik batek goi-mailako ikasketak ditu. Eta ehunekoa handiagoa da emakumeen artean. Goi-mailako ikasketek oraindik ere baliagarri izaten jarraitzen dute manufaktura-industria eta zerbitzu aurreratuen esparruan. Euskararen eraginari buruzko daturik ez dut topatu, baina alor publikoan lan egiteko goi-mailako ikasketek gain euskara izateak laguntzen duelakoan nago. Hortaz, ondorioa da, euskal unibertsitate-sistemak lortzen duela ikasleak epistemikoki indartzea, ordainsari altuenak dituzten enpleguak eskuratzeko bederen.

11. «Aliantza» eta «Sarea» ere bereizi behar ditugu. Lau herrigintza-familiaren artean eman behar da aliantza eta mugimendu hori politikoa da, eragile politiko eta sindikalek erraztu beharko luketena. Guri mugimendu politiko hori erraztea dagokigu. Unibertsitate-sistemak ematen dizkigu elkartzeko aukerak, espazioak eta denborak. Harremanak izateko aukera horiek aktiboki bilatuta sortuko dira «aliantzak». «Sarea», berriz, epistemikoa da, ez da politikoa. Unibertsitate-jarduerak osatzen dituzte sareak, egitasmo edo proiektu konkretuen inguruan. Sareak aliantzak ekartzen ditu eta aliantzek sareak, baina ez dira gauza bera.

Hemen hausnarketa bat, euskararekiko harremana nola aldatu den ikusteko: euskara salbatzeko behar genuen euskal unibertsitatea baina euskara ari zaigu gu «salbatzen», nolabait esateko, batez ere baldintza ekonomiko egonkorreko lanpostuetara bidea ematen digunean. Gaur egun, sozioekonomikoki euskarak gehiago egiten du gugatik, guk euskaragatik baino.

5.1.2. Irakasleak: jabetu eta ustiatu

Euskalherrigintzak akademia okupatu eta ustiatu behar du. Euskal Herriak bere historian inoiz ezagutu gabeko giza komunitate zabala eta baliabideak ematen dizkigu euskal unibertsitate-sistemak. Horiek ustiatzeko eragile euskalherrigintzaileak unibertsitateko irakasle egitea bultzatu behar da.

Hemen ere beste hausnarketa bat, ebaluazioaren paradoxari buruz. Euskarak abantaila ematen digu unibertsitatean irakasle-plazak lortzeko, baina, paradoxikoki, euskarak oztopatu egiten digu garapen profesionala, euskaraz aritzeak desabantaila estruktural eta sistematikoak dituelako. Aipatu gabe, zenbait ikerketa-gai tabu direla oraindik. Horregatik, ez da nahikoa irakasleak herrigintzatik etortzea. Irakaslana eta ikerketa ebaluatzeko irizpideak birdefinitu beharko lirarteke, euskaraz argitaratzeak edo herrigintzan aritzeak irakasleei kalte egin ez diezaien.

5.1.3. Ikertzaileak

Irakasleekin gertatzen den antzekoa gertatzen da ikertzaileekin. Inportantea da unibertsitatean ia zientzia-alor guztietako adituak izatea. Pandemia-garaian ikusi dugu puntako zientzialariak dauzkagula. Zientziagintzaren parametroetan gora doa unibertsitatea, baina ikerketa zabaldu egin behar da, epistemologia propiotik gaitegi propioa jorratzen ere hasteko. Ikerketa-gai estrategikoak aukeratzekoan, hiru ikerketa mota bereiz daitezke, hirurak indartzeko eta ez lehenengoa bakarrik (orain arte bezala):

- *Ikerketa homologatzailea*. Nazioartean unibertsitatea homologagarri egiten duena, munduko unibertsitateekin elkarlana eta saretzea errazten duena.
- *Ikerketa estrategikoa*. Ikerketa-lerroak irekitzerakoan, kontuan izan beharko litzateke ikertzaileek elikatu behar dituztela ezagutzaz, bai gizarte zibila, bai gobernantzako erabakiguneak.
- *Ikerketa «guk dakigunaz»*. Euskal Herria oparoa da estaturik gabeko nazio-dinamiketan, direla ikastolak, hedabideak, hizkuntza-eskolak edo kooperatibak. Gure esperientzia horien ikasketak bildu eta hedatzeko inor ez dago munduan gu baino aproposagoa denik.

5.2. Gizarte zibila

Unibertsitateak ezin du soilik izan bere komunitatearen indargarri. Unibertsitatean ekoizten eta lantzen den ezagutzak unibertsitatearen mugak gainditu eta aliantzak bilatu behar ditu gizarte-eragileekin edo herri antolatuarekin.

5.2.1. Zientzia-ezagutza zabaldu

Lana dago oraindik egiteko kultura zientifikoa deritzona zabaltzen, *epistemea* balioan jartzen, zientzia eskuratzen, herritarren eskura eta mesedetan izan dadin. Soilik zientzia-ezagutza balioan jartzen duen jendarteak senti dezake unibertsitatea bultzatu eta babestu beharreko erakundea gisa.

5.2.2. Gizarte-eragileak

Unibertsitate politiko eta sozialaren ikuspegitik, arazo erreal, bertako eta unekoekin «bustitzen» den unibertsitatea irudikatzen dugu. Pedagogikoki ere erakargarria da unibertsitate politiko eta sozial hori, ez bakarrik unibertsitatea merkatuen logika zerbitzari eta produktibistatik ateratzen duelako, baizik eta ikasleei esperientzia errealak eskaintzen dizkielako eta inguru horietan aurki ditzaketelako unibertsitatean aurkituko ez dituzten ezagutza eta gaitasun preziatuak. Herri-mugimendurekin eta gizarte-eragileekin hitzarmenak sinatu beharko lirатеke, ezagutza elkarri banatzeko eta baliabideak trukatzeko.

5.3. Erabakiguneak/gobernantza

Azkenik, unibertsitate-sistemak gobernantzan lur hartu behar du. Zientzia-ezagutza gobernatzea lehentasunezkoa da gobernantza daukagun ezagutza hoberenaz elika dadin. Pandemia-garaian ikusi dugu, edo aurretik krisi ekonomiko garaian, zein garrantzitsua den erabakietan asmatzea. Ez da beti asmatuko, jakina, baina gutxienez izan daitezela eskuragarri den ezagutzaren arabera epistemikoki zuzenenak diren erabakiak. Hori horrela, eta nik dakidala, ezagutza erabakigunetaratzea bi modutan egin ohi da:

5.3.1. Alorrez alorreko batzordeak sortu (AEBko FACA modukoa)

Unibertsitateaz aritzen garenean, asko hitz egiten dugu ezagutza merkaturatzeaz, «berrikuntza» bihurtu delako ezagutza zientifikoaren justifikazio praktikoa (eta ideologikoa). XXI. mendean, ordea, ezagutza gobernatzearen beharra da nabariagoa, gobernuak ingurune ezegonkor eta adostasunik gabekoetan erabaki epistemologikoki zuzenak har ditzaten. Unibertsitateari dagokio hain eraso den errealitate-zorua jartzea.

Eredu gisa AEBko FACA erabil genezake, 1.000 aholku-batzorde baino gehiago dauzkana, gai bakoitzeko bat, haiek guztiak kudeatzeko 100 urtetik gorako esperientziarekin. Nork ordezkutzen du nor? Nola banatzen dira «aholku»aren eta «erabaki»aren eremuak? Unibertsitate-ezagutza gobernu-erabakiak epistemologikoki indartzeko erabiltzea, hori guztia antolatzen hastea, zientzialari «lagun»en edo «alderdikoi»en batzorde-itxuratzeak atzean utzita, gero eta garrantzitsuagoa izango da.

5.3.2. «Objektu»en ordezkari-tza publikoa legitimatu

Horrekin batera, deliberazio demokratikoa lagundu dezake «ordezkatu»en (afektatuen) eremua zabaltzeak. Izan ere, zenbait kasutan ikergaiaren arabera

zientzialariek egin ditzakete ordezkari-lanak. Antxoaren ordezkari-erabakigune publikoetan? Normalean, zientzialariek. Normalean zientzialariak dira antxoak zer behar duen ondoen azaltzen dutenak, gaia sakon ezagutzen dutelako. Adibide horrek erakusten du, baita ere, zein izan litekeen unibertsitate euskalherrigintzailearen eta gizarte zibilaren arteko elkarlan-eremu zabala. Zenbaitetan zientzialariek ez ezik, gizarte-eragileek ere haragitzen dituzte hainbat desira kolektibo, ahots isildu edo objektu hutsera murriztuak izan diren agenteak. Unibertsitateak hutsune hori bete dezake, ahots berreskuratu horiei indar epistemikoa emanda, objektu horien ezagutza ekarriz eta haiek ordezkatzeko dituzten gizarte-eragileei ziurtasun epistemikoa emanaz ordezkari-erabakigune publikoan. Objektu bihurtutako agenteak subjektu politiko ahostun bihurtzeko gaitasuna dauka zientziak.

6. Muinera itzultzeko irauli beharreko perspektibak

Euskal Unibertsitatearen norabidean aurrera egiten jarraitzeko proiektu komunaren eguneratzea eman behar da. Euskal Unibertsitatearen proiektua bultzatzen jarraitzeko, ordea, duela 50 urte intuitibotzat onartzen ziren hainbat premisa irauli behar ditugu geure buruetan:

- Zerbait berria hutsetik eraikitzea baino areago, daukaguna ustiatzea. Sortzea baino areago, jabetzea, geureganatzea. Inkontzienteki edo modu deskoordinatuan baino areago modu kontzientean koordinatzea lehenetsi behar da.
- Herrigintza singularrean ulertu beharrean euskalherrigintzen ikuspegi korala hartzea.
- Puntualki eta interesen gainean eraikitzen diren elkarlanak baino areago, elkarren aitortzatik datozen arnasa luzeko aliantzak eratzea.
- Baldintza perfektuekin amestu beharrean, zirrikituak aprobetxatzea giharra egiten jarraitzeko.
- Euskara babesteko ahaleginetara mugatu beharrean, euskarak gu babes gaitzan araudiak indartzea eta garatzea.
- Soilik merkatuari begiratzen dion unibertsitate-sistema baino areago, batez ere gobernanzarako irakasle eta ikertzaileak prestatuko dituen unibertsitatea bultzatzea. Berrikuntzarako baino gehiago, erabaki politikoak hartzeko, guztioi eragiten diguten erabaki horiek epistemikoki zuzenenak izan daitezen.
- Etikoki ere mota guztietako «aterpetu»en ordezkari-erabakigune politikoa inklusio epistemikoaren bitartez haziko eta handituko duen unibertsitatea irudikatzea.

Azken batez, umiltasunez aitortzea: ez dugu guk sortuko euskal unibertsitatea. Egin, euskal unibertsitate-sistemak egingo gaitu gu, zaintzen badugu¹².

Erreferentzia bibliografikoak

- Aizpuru, Mikel (2002): «Euskal Unibertsitatea eginkizun. Aldarrikapen baten bilakaera historikoa», *Jakin*, 130, 11-31.
- Arrieta, Agustin (2019): *Gogoeta-bide irekiak*, EHU, Leioa.
- Azurmendi, Joxe (1984): *El hombre cooperativo. Jesus Maria Arizmendiarieta*, Laboral Kutxa, Donostia.
- , (1998): *Oraingo gazte eroak*, Luma liburuak, Donostia.
- , (2009): *Azken egunak Gandiagarekin*, Elkar, Donostia.
- , (2013): *Karlos Santamariaren pentsamendua*, *Jakin* eta EHU, Leioa.
- Eizagirre, Andoni eta Udaondo, Ainara (2020): *Eraldaketa globalari neurria hartzen. 13 Lanki kuadernoa*, Mondragon Unibertsitatea, Arrasate.
- Etxenike, Pedro Miguel (1998): «Universidad: Problemas y proyecto de futuro», in Lontxo Oihartzabal (koor.), *La UPV a debate*, Donostia, Erein.
- Hainbat egile, (2020): «(H)arian: Euskal hezkuntza feminista, komunitario eta burujaberako gakoak», Hezkuntzako Plaza Hutsa, <<http://plazahutsa.eus/kaiera/harian>>.
- Madinabeitia, Alba *et. al.* (2018): «The contribution of the Basque University System to the transformation of Basque Society», Leioa. Non: <<https://www.agirrecenter.eus/publicaciones/la-aportacion-del-sistema-universitario-a-la-transformacion-de-la-sociedad-vasca-2/>>.
- Santamaria, Karlos (1977): «Unibertsitateko kulturaz», *Jakin*, II-1, 67-71.
- Urbe, Arantza eta Ruben Iglesias (2019). «Hezkuntza Plaza Hutsean: behetik gorako eraikuntza», Youtube, 2019ko apirilaren 30ean igoa: <<https://www.youtube.com/watch?v=0860snk-o2Y&t=5s>>.

12. Artikulu hau Joxe Azurmendi Katedra proiektuaren ikerketa-ildoan kokatzen da eta asko zor dio bertako kide eta irakurketa-taldeari. Eskertu nahi ditut baita ere artikulua irakurtzeko, eztabaidatzeko eta iradokizunak egiteko indarra eta pazientzia izan duten bidelagunak: Iñaki Alegria, Jon Umerez, Arantza Etxeberria, Antonio Casado, Agustin Arrieta, Unai Bayon, Maider Oñederra, Eñaut Goñi, Ainhoa Larrañaga, Haritz Garmendia, Joxe Garmendia, Aitor Bengoetxea, Ion Ansa eta Maria Cañas.

